# Zubileta HLHI

| | |
|---|---|
| **Izenburua** | Gelaz kanpoko gunetan ere euskeraz aritzea. |
| **Eremua** | |
| **Estamentua** | Ikasleak, irakasleak administrazio eta zerbitzuetako langileak. |
| **Etapa** | Haur eta Lehen Hezkuntza. |
| **Partaide kopurua** | 250 ikasle, 29 irakasle, atezaina eta 11 jantokiko langile. |
| **Iraupena** | 1.hiruhilabetea |
| **Arduraduna** | Normalkuntza teknikaria |
| **Arduradunaren zeregina** | Teknikariak irakasleei proposamena luzatu die. Zirriborroa Batzorde pedagogikora eraman du. Ontzat eman ondoren kanpaina martzan jartzeko zereginekin hasi da:<br>.Txartelak, aukeratutako leloarekin, editatu eta eskolako pasabideetan, sarreran , geletan, portxeetan eta jantokian itsatzi.<br>.Pegatinak prestatu (Goizeko gelan margoztu eta mozteko)<br>.Ormairudiak prestatu, talde bakoitzak lortutako pegatinak ibilbide batean kokatzeko.<br>.Irakasle guztiei eta jantokiko arduradunari ekintzaren deskribapena idatziz pasatu.<br>.Palomitak erosi eta filmeak prestatu. |
| **Materiala** | Papera, margoak , palomitak eta DVDak |
| **Helburua** | Ikasleak jantoki, pasabide, patio eta bestelako esparruetan daudenean ere haien artean euskeraz aritzea. |
| **Azalpena** | Irakasle eta zaintzaileek, ikasle talde baten ondotik pasatu euskaraz aritzen direla ohartzean, pegatina bat emango diete. Orduan ikasleek gelako kutxa batean gorde beharko dute. Haur Hezkuntzako sarreran eta Lehen Hezkuntzako solairu bakoitzean, ormairudi bat jarriko da. Bertan, Euskeraren Egunean, hiruhilabete osoan lortutako pegatinak itsatziko dituzte ikasleek. Ibilbide osoa betetzen badute, saritzat filmea eta palomitak jasoko dituzte.<br>Ekintza hasi baino lehen, oso garrantzitsua da ikasleei jardueraren helburua azaltzea. |
| **Oharra** | Helburua lortu da. Euskera entzuten da askoz gehiago .<br>Urtero antzeko gauza bat asmatu behar dugu. |